




Sexem

FINANTZAK
ETA GENERO-
-DESBERDINKERIAK

LABURPENA

**MATXISMOA
FINANTZA-SISTEMAN:
DESBERDINKERIA DAGOEN ARREN,
JENDEAK EZ DU NABARITZEN**





Desberdinkeriak ezkutuan geratzen dira, emakumeek beste esparru batzuetan jasaten dituzten bestelako diskriminazio batzuekin alderatuta.



Emakumeek protagonismo handiagoa dute eguneroko finantzen kudeaketan, eta gizonek, berriz, gehiago parte hartzen dute epe luzearako erabaki finantzarioetan.



Gizonen eta emakumeen soldaten arteko diferentzia dago desberdinkeria horien oinarrian: soldata txikiagoa izateak etxeko erabaki finantzarioetan garrantzi txikiagoa izatea dakar.



Bankuek ez dute berdin jokatzeko bezeroa gizona denean edo emakumea denean.

SETEMEk Euskal Autonomia Erkidegoan egin duen ikerketa baten arabera, bankuek oztopo gehiago jartzen dizkiete emakumeei gizonen baino produktu finantzario batzuk eskuratzeko.

Azterlanaren oinarria esparru teoriko zabal bat da, eta hainbat hipotesitika abiatuz, finantza-esparruan genero-desberdinkeriak daudela islatzen du. Desberdinkeria horiek, emakumeen bizimoduan eta eskubide ekonomikoetan eragina duen muga bat izateaz gain, ez dira nabarmentzen bestelako genero-desberdinkeria batzuekin alderatuta.

Esparru teoriko hori bigarren fasean egiaztatu zen, metodologia enpiriko baten bitartez, eta horretarako, bi ikerketa-teknika erabili ziren: herritarrei egindako inkesta bat eta “bezero faltsuek” bankuetara egin zituzten bisitak.

Inkestak 24 eta 65 urte arteko 625 pertsonari egin zitzaizkien 2014an, eta sexua-
ren, adinaren eta probintziaren arabera bereizi ziren.

Bezero misteriotsuaren teknikari dagokionez, 48 bisita egin zitzaizkien Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetan diharduten banku hauei: Kutxabank, BBVA, Banco Santander Central Hispano, La Caixa, Caja Laboral eta Banco Sabadell.

Bisiten erdia emakume batek egin zuen eta beste erdia gizon batek. Biek esperientzia zuten antzeko lanetan eta antzeko profil soziodemografikoa zuten:

adina, prestakuntza-maila, lan-arloko ibilbidea, etab. Mysteryak egoera hipotetiko berdin-berdinetan egin ziren gizonentzat eta emakumeentzat, emaitzak alderatu ahal izateko. Horrela, erakundeetara hiru kreditu-eskaerarekin joan ziren: kreditu pertsonala, hipoteka eta negoziokoa.

Gainera, erakundeek beren langileriako sexu-banaketaren inguruan eman dituzten datuak analizatu ziren.


Lehenengo bi metodologiak Euskadiko biztanleriaren eta erakundeen inguruan aplikatu ziren, lurralde horren baldintzatzaileekin. Horrek esan nahi du azterlana beste lurralde batean egingo balitz ziurrenik emaitza desberdinak lortuko liratekeela, baina azterlanaren asmoa da finantza-esparruko genero-desberdinkeriaren inguruko ezagutzan murgiltzen hastea.

NABARITZEN EZ DIREN DESBERDINKERIAK

Azterlanak gehien azpimarratzen dituen alderdietako bat da genero-desberdinkeriek finantza-sisteman oihartzun txikia izan dutela. Fenomeno hori ez da inondik ere nahikoa ikertu gure inguruan (askoz informazio gehiago aurki daiteke dinamika honi buruz herrialde pobretuetan). Hala ere, SETEMen azterlanak erakusten du emakumeen diskriminazioaren berri ez izatearen arrazoia ez dela ez dagoela, ez dela ikusarazi baizik.

Oihartzun txiki hori, era berean, esparru honetan biztanleria homogeenoa samarra dugulako dugu, oro har baxua den profil finantzarioa duena, eta horrek esan nahi du finantza-arloko ezagutza eta kontrol txikia duela, baita finantzetan jokabide kontserbadorea duela eta biztanleriak aholkularitza finantzarioa lortzeko bankuekiko menpekotasun handia duela ere.

HERRITARREK FINANTZEN GAINEAN DUTEN KONTROLA



INOIZ EZ / GUTXITAN / BATZUETAN

BETI / GEHIENETAN

HERRITARREN JARRERA KONTSERBADOREA FINANTZEN ARLOAN



Honen harira, biztanleriaren % 38,6 identifikatzen da profil gogoetazaleekin, hots, segurtasuna bilatzen du eta ez zaio hainbeste interesatzen aberastasuna pilatzea; biztanleriaren % 21,1ek, aldiz, gutxiago hausnartzen du eta finantzen arloan jarrera arriskutsuagoko rolak ditu.

Edozein kasutan ere, azpimarratzekoa da praktikan balio horiek ez daudela sexu batekin edo bestearekin erlazionatuta, eta izatez, biztanleria gehien-gehienak saihesten duela arrisku finantzarioa.

Are gehiago, badirudi genero-aurreiritziak euskal biztanlerian ia ez direla praktikan ikusten: inkestatutako pertsonen % 10ek bakarrik uste du gizonen emakumeek baino kultura eta interes finantzario handiagoa dutela.

Bada, emaitza horiek ikusita, esan daiteke finantzen esparruan ez dagoela desberdinkeriarik? Badago, baina, esan dugun bezala, ez da horren nabarmena. Are gehiago, inkestatutako emakumeek adierazi zuten ez zutela tratatu desberdina jasotzen gizonekin alderatuta. Hala ere, bezero faltsuaren teknikarekin, oso ondorio desberdinak atera ditugu.

Finantza-arloan genero-desberdinkeria egon badago, baina ez da horren nabarmena.

BANKUEK EZ DUTE BERDIN JOKATZEN EMAKUMEEKIN

Gizabanako batek banku baten atea zeharkatzen duenean, gizona ala emakumea den jasoko duen arreta baldintzatuko duen faktore bat da, ikerketak argi eta garbi islatzen duen bezala.

Gogoratu beharra dago ondorio horiek atera direla finantza-erakundeetara “bezero misteriotsua”ren teknika erabiliz bisitak egin eta gero. Gizona eta emakumea baldintza berekin joan ziren (esperientzia, datu ekonomikoak...), baina bankuaren erantzuna ez zen horren araberakoa emakumeen kasuan, beste faktore batzuk ere tartean baitziren.

Antzeman diren matxismoek islatzen dute emakumeekiko jokabidea desberdina dela, eta oro har, baldintza gehiago eskatzen zaizkiela, baita gizonen eskatzen ez zaien informazioa ere, pertsonala nahiz lan-arlokoa. Hau da, kreditu bat lortu nahi duen emakume batek gizonen egiten ez dizkieten galdera batzuei erantzun behar die, neurri handiagoan jartzen baitira zalantzan emakumeen autonomia eta kaudimena.

Gure ikerketan, bankuek gehiago ikertu zuten emakumearen egoera zibilari eta laneko bizitzari buruz eta mailegu-eskaerak beste pertsona batzuk barne hartzen zituen jakiteko. Aitzitik, gizonei inoiz ere ez zieten galdetu beren laneko bizitzari buruz eta beren egoera zibilari buruzko galderak anekdotikoak baino ez dira.

Emakumeak mailegu-eskatzailerik gisa zalantzan jartzen direla are nabariagoa izan zen negozio-kredituaren kasuan; izan ere, emakumearen kasuan kreditua ematea posible ote zen galdetzean bideragarritasun-plan baten emaitzen arabera zela erantzun zioten, eta gizonari, ordea, kasu berean baietz erantzun zioten kasu guztietan, eta ez zioten bideragarritasun-planik eskatu (kasu hipotetikoarekin jarraituz gero azkenean plan hori kreditua emateko nahitaezko baldintza izan zitekeen gorabehera).

Era berean, emakumeari abal-emaile bat eskatu zioten kasuen erdian eta gizonaren kasuan ez zen izan exijentzia garrantzitsu bat.

Hortaz, argi geratu zen bankuek konfiantza txikiagoa dutela emakumeengan, baina bezeroa gizonezkoa izan zenean, erakundeak negozioa jartzera animatu zuen (erakundeak gizona bezero gisa izateko interes handiagoa erakutsi zuen eta aholku gehiago eman zizkion kasuen % 62,5etan, emakumeen kasuan, berriaz, % 12,5etan); emakumearen kasuan, ordea, kreditua emateko beste baldintza batzuk jartzen ziren (bideragarritasun-plana edo abal-emailea) eta kreditua ematea ez zen berak eskaini zezakeenaren arabera (esperientzia, datu ekonomikoak, etab.).

Emakumeen gaitasunaren inguruko mesfidantza horrek, gainera, kreditu-baldintza txarragoak izatea ere eragiten du. Bada, hipoteka-kredituaren kasuan, gizonari 160.000 euro eskaini zizkieten, eta emakumeari zenbateko zehatz bat esan zioten kasuetan 95.000 euro ziurtatu zizkieten.

Gainera, interes-tasa desberdinak eskaini zizkieten kreditu pertsonaletan; zehazki, emakumeari interes altuagoa eskaini zioten 8 kasuetako 3tan.

DESBERDINKERIAREN SUSTRAI HISTORIKOAK

Inkesten emaitzen bitartez biztanleria analizatuz ikus dezakegu familia-arloan rolen artean desberdintasun handia dagoela produktu jakin batzuk kontratatatu eta erosterakoan, eta finantza-produktuen kasuan ere gauza bera gertatzen dela.


Emakumeak arduratzen dira familiarentzat eguneroko produktuak erosteaz, eta finantza-arloari dagokionez, biztanleriaren % 37,8k uste du batik bat emakumeak arduratzen direla eguneroko finantzez.

Gastuak handiagoak direnean edo/eta seme-alabak ere ukitzen dituztenean, gizonak erabakian nahasten dira, baina ez rol nagusiarekin, eta emakumeek paper nagusia izateari uzten diote, erabakiak neurri handiagoan hartzen baitira bikotekidearekin batera. Finantza-produkturik ohikoenetan (hala nola kontu-korronteak irekitzea edo kreditu- edo zor-txartelak kontratatzea), erabakiak bikotekidearekin batera hartzen dira, eta kasu horretan gizonek eta emakumeek antzeko ahalmena dute.


Hala ere, finantza-produktuak zenbat eta konplikatuagoak izan, orduan eta pisu txikiagoa dute emakumeek. Pentsio-planen, inbertsio-produktuen, orotariko kredituen eta antzeko produktuen inguruan, nabariagoa da gizonek pisu handiagoa dutela.

Emakumeak arduratzen dira familiarentzat eguneroko produktuak erosteaz (...) Hala ere, finantza-produktuak zenbat eta konplikatuagoak izan, orduan eta pisu txikiagoa dute emakumeek.


EMAKUMEAK NAGUSITASUN HANDIAGOA. ETXEAN



BERDINTASUN HANDIAGOA. FINANTZA SINPLEAK



GIZONAK NAGUSITASUN HANDIAGOA. FINANTZA KONPLIKATUAK




Emakumeek erabakiak bikotekidearekin batera hartzeko joera handiagoa dute, informazioa bilatzeko unetik bertatik, eta gehiago jotzen dute bikotekidearengana. Gizonek, aldiz, sarriago erabiltzen dute Internet kontsultak egiteko iturri gisa, eta horrek, zeharka, gizonen eta emakumeen autonomia finantzarioa desberdina dela ere islatzen du.

Autonomia finantzarioa zuzenean erlazionatuta dago finantzen arloko kontrolarekin eta segurtasunarekin, hau da, zenbat eta autonomia handiagoa orduan eta segurtasun handiagoa eta alderantziz. Kontu hau are nabariagoa da emakumeen artean, hau da, segurtasun txikiena dutenek autonomia txikiagoa dute finantza-erakundeekiko harremanetan eta produktuak kontratatzerakoan (kontrol finantzario txikiagoa duten emakumeen % 27,2k dute autonomia-falta, eta gizonen kasuan % 20k); aitzitik, autonomia txikiagoa dutenek gizonen baino segurtasun txikiagoa dute gizonen egoera berean egonda (autonomia falta duten emakumeen % 71,9k dute kontrol finantzario txikia, eta gizonen kasuan % 53,8k).

Baina emakumeak zergatik daude egoera txarragoan autonomia eta segurtasun finantzarioari dagokienez? Hemen sartzen da jokoan generoaren ondoriozko diskriminazioa zuzenean seinalatzen duen aldagai bat, emakumeek eta gizonen bankuekin dituzten harremanak baldintzatzen dituena: **etxera eramaten dituzten diru-sarrerak**. Familia-unitatean diru-sarrera handienak dituzten pertsonak autonomoagoak dira. Eta eskuragarri dauden estatistika guztiek (azterlan honetakoek ere bai) islatzen duten bezala, emakumeak aldagai honetan oso egoera txarrean geratzen dira, soldaten arteko diferentziaren ondorioz.

Gizonen eta emakumeen soldaten arteko diferentzia dago desberdinkerien oinarrian: soldata txikiagoa izateak etxeko erabaki finantzarioetan garrantzi txikiagoa izatea dakar.

BIKOTEKIDEAREKIN BIZI DIREN ETA ETXEKO DIRU-SARRERA HANDIENAK DITUZTEN PERTSONAK



DESBERDINKERIA BANKUEN BARRUAN ERE ISLATZEN DA

Euskadin lan egiten duten banku nagusien langileria aztertuz ikusi dugu gutxi gorabehera gizon eta emakume kopuru bera duten arren zuzendaritzan eta nolabaiteko erantzukizuna duten karguetan gizonak daudela batik bat.

Datuak ezin dira alderatu, erakundeen memorietatik atera direlako eta memoria horiek ez direlako irizpide berekin egin. Hala ere, erantzukizuneko karguetan emakumeen proportzioa oso gutxitan da % 30etik gorakoa, eta beti kargu horien eskalarik baxuenetan.

Finantza-erakundeen kupuletan emakume gutxi eta botere txikikoak egotea ez da espainiar estatuan bakarrik gertatzen den zerbait. Mundu-mailan, finantza-enpresen zuzendaritza-karguen % 4 bakarrik daude emakumeen esku.

Horrelako aldeak ez dira finantzen esparruan bakarrik ikusten. Botere-esparru gehienetan, emakumeek gizonak baino ordezkari txikiagoa dute erabakiak hartzeko ahalmena duten postuetan.

FINANTZA ETIKOAK DESBERDINKERIA DESEGITEKO

Finantza etikoaren helburua da ekonomia solidarioak sistema kapitalistaren berezko egiturazko bidegabekeriaren arazoari aurre egiteko sustatzen dituen erantzunetako bat izatea. Beste irizpide eta baldintza batzuekin diharduten egitura alternatiboak garatuz, aldaketan hazi izan nahi duten proiektuak garatzen dituzte.

Finantza etikoaren alderdi batzuek, zalantzarik gabe, sustrai feminista sako-
na dute. Lehenik, finantza etikoaren izaera politikoa eta pertsonen askatasu-
nen banaketa ez-baztertzailerik eta berdintasunezko baten aldeko konpromisoa
lehenengo ardatza da krediturako eskubidearen defentsa oinarritzeko; hau
da, beste eskubide batzuk ahalbidetzen edo bermatzen dituen eskubide bat
bezala ikusten da. Krediturako hurbilketa honek finantza etikoak bizitzaren
iraunkortasunaren eta zaintza-esparruen ikuspuntutik hurbilago kokatzen
ditu. Beren kezka ez da irabaziak lortzea eta kapitala pilatzea.

Bigarrenik, finantza etikoaren gaitasun emantzipatzailea konfiantzan, zaintzan
eta bizitzaren iraunkortasunean oinarritutako beste logika eta harreman ba-
tzuen inguruan artikulatzen da. Boterearen deskolonizazioa eskatzen eta exi-
jitzen dute, ezagutzeko beste modu batzuk ahalbidetzeko, baita nagusitasun
modernoaren, androzentrikoaren eta kapitalistaren beste modu batzuk ere.

Hirugarrenik, finantza etikoaren balio transformatzaileak haustura-ekonomia
feministaren eskemetan sakontzea eta ekonomikoaren esanahi-aldaketa bat
sustatzea exijitzen du, menderakuntza-kode patriarkalak, diruaren neutral-
tasun faltsua eta harreman finantzarioak salatuz. Finantza etikoek hurbiltas-
unezko zirkuitu ekonomikoaren eta laguntza-sareen balioa aintzatesten dute,
hainbat baliotan oinarrituz (hala nola hurbiltasuna, konfiantza eta solidari-
tate okertua).

Finantza etikoaren balio transformatzaileak haustura-ekonomia feministaren eskemetan sakontzea eta ekonomikoaren esanahi-aldaketa bat sustatzea exijitzen du, menderakuntza-kode patriarkalak, diruaren neutraltasun faltsua eta harreman finantzarioak salatuz.

Setem

www.setem.org/euskadi

f SetemHegoHaizea

🐦 @SetemHegoHaizea

